



**GORBEIALDEKO KUADRILLA: ADMINISTRAZIOAN EUSKARAREN ERABILERA
NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2027**

GORBEIALDEKO KUADRILLAREN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

SARRERA

Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza, hizkuntza ofiziala da gaztelaniarekin batera, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Alor publiko osoak hizkuntza horien ofizialtasuna arautu eta bi hizkuntzen erabilera-berdintasuna bermatu behar du. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiek dute euskara eta gaztelania jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Botere publikoek eskubide horien erabilera bermatu behar dute.

Agiri honetan jasotakoak EAEko bi hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibide orokorrak dira. Helburua da Gorbeialdeko Kuadrillaren administrazioan eta zerbitzuetan hizkuntzak egoki kudeatzeko irizpideak ezartzea.

Hemen jasotako irizpideei jarraipena egiteko modua, eta irizpideak betetzeko beharrezkoak diren jarduerak eta neurriak Gorbeialdeko Kuadrillaren administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoan jasoko dira. Bai irizpideek, bai planak, 2023tik 2027ra arteko indarraldia izango dute.

Helburuak

Hizkuntza irizpide hauen helburu nagusiak honakoak dira:

- Herritarren **hizkuntza-eskubideak** bermatzea eta hizkuntza berdintasuna lortzea herritar horiek Gorbeialdeko Kuadrillarekin harremanetan jartzen direnean.
- **Euskararen erabilera normalizatzea** eta sustatzea Gorbeialdeko Kuadrillaren administrazioan eta zerbitzuetan.

Eragin-eremua

Irizpide hauek Gorbeialdeko Kuadrillak bere izenean egiten dituen administrazio-egintza, ekitaldi, jarduera eta prozesu guztietan ezarriko dira. Kuadrilla osatzen duten udalek, aldiz, beren hizkuntza-irizpide propioak izango dituzte.



Diskriminaziorik gabeko hizkuntza

Gorbeialdeko Kuadrillak hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabili behar du irudi eta jarduera mota guztietan, eta sortzen dituen dokumentu eta euskarrietan.

1. ARDATZA: KUDEAKETA

1.1 arloa. Euskararen kudeaketa orokorra eta lidergoa

Herritarren hizkuntza-eskubideak zaindu eta bete daitezzen, hizkuntza ofizialen kudeaketa erakundeko kudeaketa-sistema orokorraren barruan txertatuta egon beharko da, hemen zehazten diren irizpideen arabera.

Irizpide horien, eta irizpide horiek betetzeko planaren jarraipena egiteaz arduratuko da Gorbeialdeko Kuadrillak izendatutako lan-taldea, gutxienez honakoez osatua:

- Ordezkaritza politikoa
- Ordezkaritza teknikoa
- Euskara zerbitzua

Lan-talde horrek bi bilera egingo ditu gutxienez urtean. Bilera horiek egin baino lehen, euskara zerbitzuak irizpideen betetze-mailaren inguruko unean-uneko azterketa egingo du. Azterketaren emaitzekin osatutako txostena izango da lan-taldeak jarraipena egiteko oinarria.

1.2 arloa. Langileak

Euskara zerbitzuak informazioa emango die langileei onartutako planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, langileek uneoro argi izan dezaten zein den beren erakundearen helburua hizkuntzen kudeaketaren alorrean; eta noiz, norekin, zein hizkuntzatan egin behar duten beren lan-jardunean.

Gorbeialdeko Kuadrillan langile berri bat lanean hasten den bakoitzean euskara zerbitzuak hizkuntza-irizpideen berri emango dio, lanpostuak dituen funtzioetara egokituta.

1.3 arloa. Hizkuntza gaitasuna

a) Langileak



Gorbeialdeko Kuadrillako euskara zerbitzuak berrikusi egingo ditu lanpostu-zerrendako hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak plangintzaldi bakoitzaren hasieran, eta baita lanpostu-zerrenda horretan aldaketak daudenean ere.

Lanpostu-zerrendatik kanpoko kontratazioak egiten direnean ere gauza bera egingo du.

b) Ordezkarri politikoak

Legealdi bakoitzaren hasieran, batzar berria eratzerakoan, bertako kideen euskara gaitasunaren azterketa egingo da. Horrekin batera, Kuadrillaren hizkuntza-irizpideen inguruko informazioa emango zaie, eta bakoitzaren gaitasunaren araberako harremana ezarriko da.

1.4. arloa. Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa

Gorbeialdeko Kuadrillak bere hizkuntza-irizpideen berri emango die herritarrei.

Era berean, irizpide horien arabera, euskara erabiltzeko mezu proaktiboa helaraziko die, euskarri grafikoen bidez.

1.5. arloa. Hizkuntza klausulak

Gorbeialdeko Kuadrillak egindako kontratuetan, kasu bakoitzean beharrezkoak diren hizkuntza-klausulak sartuko dira, batetik, herritarrei bermatzeko erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan jaso ahal izatea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak eta, bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeko.

Horretarako, kontratu motaren arabeko klausulak proposatuko dizkio euskara zerbitzuak kontratazio-organoari. Ondoren, kontratazio-organoaren ardura izango da klausula horiek betetzen direla bermatzea, euskara zerbitzuaren laguntzarekin.

Administrazio-klausula partikularrei eta baldintza teknikoei buruzko agiriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratzeko ahalegina egingo da.

2. ARDATZA: ERABILERA

2.1. Irudia



Errotuluak

Gorbeialdeko Kuadrillaren egoitzetako, bulegoetako eta beste azpiegitura batzuetako barneko eta kanpoko errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak) hizkuntza ofizial bietan idatziko dira, edozein euskarritan.

hala ere, errotulua euskara hutsez jarri ahalko da honako kasu hauetan:

- a) Testuaren grafia euskaraz eta gaztelaniaz oso antzekoa denean.
- b) Euskarazko errotuluak nahasmenik sortzen ez duenean.
- c) Mezuarekin batera, piktograma bat ere badagoenean, esanahia argitzeko.

Irudi instituzionalean hizkuntza ofizial biak erabiltzen direnean, lehentasuna emango zaio euskarari.

Webgunea, sare sozialak, argitalpenak, publizitatea

Gorbeialdeko Kuadrillaren argitalpen guztiak (digitalak zein fisikoak) elebitan egongo dira, euskarari lehentasuna emanez.

Gorbeialdeko Kuadrillaren publizitate iragarkiak gaztelaniaz eta euskaraz izango dira, kopuru berean.

Jendaurreko ekitaldiak

Ekitaldiko parte-hartzaile guztiek euskara ulertzeko gaitasun nahikoa badute, ekitaldia euskaraz egingo da. Horretarako, arduradunak publikoki galdetuko du ekitaldiaren hasieran.

Ekitaldiaren hizkuntza gaztelaniaz bada, eta aurretik aurkezpen bat badago, edo hasierako hitzak esan behar badira, aurkezpen hori elebitan egingo da.

Ekitaldia gaztelera izan arren, parte hartzailearen batek bere ekarpena euskaraz egiten badu, ez da oztoporik jarriko, eta euskara ulertzen ez dutenentzako mekanismoak jarriko dira martxan (aldibereko itzulpena).

2.2. Herritarrekiko harremanak

Ahoz

Telefonoz edo aurrez aurre herritarrari zerbitzua ematen zaionean, euskarazko arreta bermatuko da. langileek euskaraz artatuko dute herritarra, eta ondoren, herritarrak



aukeratutako hizkuntza ofizialean jarraituko dute, herritarrak hizkuntza ofizialak erabiltzeko daukan eskubidea bermatuz.

Herritarrak euskaraz jardun nahi duela adierazten badio euskaraz ez dakien langile bati, langile horrek lankide elebidun baten laguntza eskatuko du.

Langileek ez diote inoiz eskatuko herritarrari hizkuntza batean ala bestean jarduteko.

Idatziz

Gorbeialdeko Kuadrilla dokumentu igorlea denean, lehenengo komunikazioa ele bietan egingo da, bai zabalkunde orokorreko dokumentuetan, bai norbanakoei eta taldeei bidalitakoetan.

Gorbeialdeko Kuadrillak dokumentua jaso eta erantzun behar duenean, honela jokatu du:

- Harremana euskaraz nahi duenari, edota dokumentuak euskaraz igorri dituenari, euskaraz erantzungo zaio.
- Ele bietan jasotako komunikazioei bi hizkuntzetako batean erantzungo zaie, eta aukeratzekoan euskara lehenesteko saiakera egingo da.
- Gaztelaniaz jasotako komunikazioei gaztelaniaz edo ele bietan erantzungo zaie.
- Beti eskainiko da etorkizunean euskaraz komunikatzeko aukera.

2.3. Barne harremanak

Ahoz

Euskararen erabilera sustatuko da lankideen arteko telefonozko eta aurrez aurreko ahozko lan-harremanetan.

Lan bilerako parte-hartzaile guztiek euskara ulertzeko gaitasun nahikoa badute, ekitaldia euskaraz egingo da. Horretarako, arduradunak publikoki galdetuko du ekitaldiaren hasieran.

Idatziz

Euskararen erabilera sustatuko da lankideen arteko idatzizko lan-harremanetan.

Administrazio prozedurak

Prozedura administratibo bat hasten denean, edo espediente bat irekitzen denean, prozeduraren pauso guztiak zein hizkuntzatan egingo diren erabakiko da, eta elebitan



egiteko aukera sustatuko da.

Prozedurak euskaraz izapidetu ahal izango da, prozedura hasteko eskabidea euskaraz egin bada.

2.4. Kanpo harremanak

Sektore publikoa

Gorbeialdeko Kuadrillako langileek lehen hitza euskaraz egingo dute beti, eta solaskideak euskaraz baldin badaki euskaraz jarraituko da elkarrizketa. Beste administrazio batek komunikazioari hasiera ematen badio, Gorbeialdeko Kuadrillako langileek komunikazioa hasi den hizkuntzan jarraituko dute elkarrizketa.

EAEko Sektore Publikoko erakundeen artean euskarazko komunikazioak sustatuko dira.

Euskaraz idatzitako idazki edo errekerimendu bati emandako erantzunak euskaraz egingo dira. Idazkia bi hizkuntzetan edo gaztelaniaz jaso bada, bi hizkuntzetan erantzuteko ahalegina egingo da.

Enpresa pribatuak

Telefonoz edo aurrez aurre enpresa bati zerbitzua ematen zaionean, euskarazko arreta bermatuko da. Langileek euskaraz artatuko dute enpresa, eta ondoren, enpresak aukeratutako hizkuntza ofizialean jarraituko dute, herritarrak hizkuntza ofizialak erabiltzeko daukan eskubidea bermatuz.

Solaskideak euskaraz hitz egiten badio euskaraz ez dakien langile bati, edota euskaraz jardun nahi duela adierazten badio, langile horrek lankide elebidun baten laguntza eskatuko du.

Langileek ez diote inoiz eskatuko enpresari hizkuntza batean ala bestean jarduteko.

Erakunde pribatuekiko idatzizko komunikazioetan euskararen erabilera sustatuko da.

2.5. Prestakuntza

Prestakuntza jaso behar duten langile guztiek euskarazko ulermen-maila nahikoa badute, prestakuntza euskaraz jasotzea lehenetsiko da.

Gorbeialdeko Kuadrillak hizkuntza-irizpide hauek betetzeko langileen hizkuntza-trebakuntza beharrak aztertuko ditu, eta Gorbeialdeko Kuadrillako prestakuntza plan orokorrean trebakuntza-ikastaroak txertatzeko proposamenak egingo ditu. Zigoitiko Udalak trebakuntza hori emateko beharrezko baliabideak bermatuko ditu.

2.6. Baliabide informatikoak



Programa, aplikazio, datu-base edo tresnen euskarazko bertsioa instalatzeko eskaintza egingo zaie euskara maila nahikoa duten langileei, horretarako aukera dagoenean.

2.7. Sortze hizkuntza eta itzulpenak

Oro har, dokumentuak euskaraz sortzea bultzatuko da, eta, dokumentu elebidunetan, ondoren gaztelaniara itzultzea.

Alderantzizko bidea egiten denean (gaztelaniaz sortu, eta euskarara itzuli), ondorengo pausoak jarraituko ditu dokumentuaren sortzaileak:

- Bertsio elebiduna sortu: ohiko dokumentuetan bi zutabeko dokumentua eginda, euskarazko bertsioa ezkerrean jarrita / Dokumentu bereziak direnean (argitalpenak, formatu berezikoak...) hizkuntza bakoitzarentzat bertsio bat sortuta.
- Gaztelaniazko testua itzultzaile neuronalarekin itzuli (<https://www.euskadi.eus/itzuli/>), eta ondoren berrikusi.
- Berrikusterakoan zalantzak izanez gero, edo testuak zailtasunen bat badu, euskara zerbitzuari bidali.
- Kasu berezietan euskara zerbitzuari zuzenean itzulpena eskatzeko aukera aztertuko da.